



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2025eko azaroa · 427 alea



BADATOR BARRENA
DEBABARRENEKO
HEDABIDEA



PIL-PILEAN 427

2025eko azaroa

Azaleko argazkiaren egilea:

Juan Fernandez.

Aurkibidea

- | | | | | |
|----|----------------------|---|-----------------------|---|
| 4 | Bote prontuan | Mari Tere Igartza | IRITZIA | |
| 6 | Argazki bidez | Blues Hotsak jaialdia | 3 Neuretik | Nerea Isasti <i>Gure mendiak berriz ere mehatxupean</i> |
| 8 | Zer berri | Aktualitateko albisteak | 14 Gutunak | Gipuzkoako Elikagaien Bankua <i>Eskertza</i> |
| 16 | Erreportajea | Barrena jaio da Pil-pileanen lekukoa hartzeko | 14 Komiki tira | |
| 22 | Kirola | Jose Antonio Nuñez Txiki bolaria Euskal Herriko txapeldun | 15 Hausnarketa | Nora jotzen duzu informazio fidagarria eskuratzeko? |
| 24 | Kultura | Etena, aldi batera | 15 Puntua | Xabier Iñurrieta Labaien <i>Azaroan arazoa konponduta</i> |
| 26 | Zerbitzuak | Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



SORALUZEKO UDALA

Gure mendiak berriz ere mehatxupean



NEREA ISASTI

2023. urte amaieran Green Capital enpresak amore eman zuen. Ez zuen Karakateko parke eolikoa eraikiko. Herri elkarteek, Udalek eta talde ekologistek borroka irabazi zuten. Hor daukagu Dolmenen Ibilbidea, gure altxorrik preziatuena. Halere, argi utzi nahi izan zuten mehatxuak hor jarraitzen zuela eta ezin genituela besoak jaitsi. Eta hala izan da.

Bi urteren bueltan, gure mendiak berriz ere mehatxupean daude. Oraingoan, Basalgo parke eolikoa eraiki nahi dute, Soraluze, Eibar, Bergara eta Elgetako lurretan, Topinburu eta Illordo mendi-gainetan, besteak beste.

Proiektua egin nahi duten enpresak, Sevillako Arena Power Solar, Savanna Power Solar eta Enigma Green Power dira. Egilea, berriz, Sevillako industria ingeniari tekniko bat.

Basalgoko parkeak sei aerosorgailu aurreikusten ditu; *Cote 26, Galera 26, La Carmelita 3, Lima, Los Pistoleros 4* eta *Paloma 5*. Hiru Bergaran, bi Eibarren eta bat Soraluzen. Hona hemen munstro bakoitzaren neurriak: dorreak 112 metro neurtzen ditu altueran, errotoaren diametroak 175 metro, aerosorgailuen palek, 85,7 metro eta dorreen arteko bideek 6 metro zabaleran. Alturako 112 metroei zimendatzea gehitu behar zaio, hormigoi armatuzko 24 metroko diametrodun zapata biribila. Parke eolikorako sarbidea N-636 errepideko 35 eta 36 puntu kilometrikoetan legoke, GI-2639 errepiderantz doan desbideratzea hartuz. Hori guztiari Soraluzeko lurretan eraikiko luketen neurketa dorrea gehitu behar zaio, 120,4 metro altu. Euskadin, antzeko garaierarekin, Bilboko Anboto dorrea dugu (etxe orratza), pentsa. Parke eolikoa Soraluzeko lehen biztanlegunetik 1.400 metrora legoke eta Eibarko lehen biztanlegunetik 1.100 metrora.

Hori gutxi ez, eta behin-behineko instalazioak ere hartu behar dira kontutan; hau da, lanek irauten duten bitartean, obrako kanpalekua, bulagoak, aparkalekua eta abar luzea. Langileak, materialak, lurrak eta hondakinak alde batetik bestera ibiliko dira, horrek dakarren guztiarekin. Parkearen bizitza baliagarria 30 urte ingurukoa izango litzateke eta behin hau amaituta, dorreak desegingo lituzkete, ez berriz, zimendatzea.

Bitartean, zarata aerodinamikoa, zarata mekanikoa, biodibertsitate galera, mendiko lurzoruaen zulaketa... Helburua, energia mendekotasuna edota berotegi efektua eragiten duten gasak murriztea da, eta inor ez dago horren aurka. Baina, Soraluze eta Eibarren kasuan, ez al dira ondorioak txarragoak balizko onurak baino?

SORALUZEREN ETA EIBARREN KASUAN, EZ AL DIRA ONDORIOAK TXARRAGOAK BALIZKO ONURAK BAINO?

“Baserriko lanak egiteko ez dago ondorengorik”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: JUAN FERNANDEZ

Mari Tere Igartzak (Lezarri Aurtengua baserria, Mekolalde, 1945) 50 urte daramatza astero-astero Lezarri baserriko produktuak Soraluzera ekartzen, eta oraindik ez dauka etortzeari lagatzeko asmorik. Aurtengo Gaztañerre azokan aitortza jaso zuen halako dedikazioarengatik.

Oraindik ez duzu erretiratzeko asmorik?

Barazkiak ipintzen ditugu eta gero etorri egiten dira! Hasi beharko gara ez ipintzen. Egia esan, gustuko gauza ere bada. Hona etorri, goiza eman, kafea hartu... Gizonari -Jesus Altube- ere gustatzen zaio gauzak ipintzea, hark esaten du zer ipini behar dugun. Eta semea ere badugu baserrian, jubilatuta, ahal duenetan laguntzen, makinekin-eta. Baserrian hiru ibiltzen gara zeozertan eta gero, Nekane alaba saltzen laguntzera etortzen da 11-12 urte zituenetik.

Bergaran dago zuen baserria; hala ere, Plazentziara etortzen zarete azokan saltzera...

Bai, beti. Ni orain hemen nabil, baina lehenago, gizonaren ama, Felipa Albisua astoarekin etortzen zen Plazentziara, gero koinata hasi zen, Zoila -haiek Lezarrikoak dira, neu Basalgokoa naiz-, eta koinatak laga ondoren, neu hasi nintzen, gaur arte. Neu naiz azkena. Gizonaren amaren ama Azaleagakoa zen. Lezarrin, berriz, hirugarren belaunaldia dago orain.

Zeu azkena baserriko produktuak saltzen; ondorenik ez?

Ez, neu izango naiz azokara saltzera datorren Lezarriko azken baserritarra. -Nekane- nik zaila daukat, azokara etortzeko aurretik lan handia egin behar da. Neuk beste lan bat daukat ikastolan eta artisaua ere banaiz. Baserrian bizitzeko bada ondorengorik, baina baserriko lanak egiteko ez.

Gero eta baserritar gutxiago ari zarete eusten baserriko lanei; zerk lagunduko luke gazteak animatzen?

Hemendik bizitzeko horretara dedikatu behar zara erabat, gustatu egin behar zaizu eta laguntzak ere behar dira, politikariek gehiago

lagundu beharko lukete. Hemengo jendeak produktua gehiago baloratzeak ere lagunduko luke. Guk, adibidez, baserrian ez dugu inoiz kaleko jornalik izan, beti baserritik bizi izan gara.

Baina beti lanean...

Orain, makinekin errazago lan egiten da. Hala ere, oraindik lana lana da. Astelehenetik domekara. Eguraldi txarrarekin gutxiago, egunak zenbat eta luzeagoak izan, lana handitu egiten da. Orain barruko lanak egiten ari gara, babak apartatu eta halakoak. Oporrik ezin da hartu hemen. Guk egiten duguna da abuztuan pare bat zapatutan azokara ez etorri, eta, horiek dira gure oporrak.

Klima aldaketarik igartzen duzue ala betiko produktuei eusten diezue?

Orain mamorro ugari dago. Tomateari atakatzen dio asko. Ez da egon tomaterik ganoraz. Ezin zaio horrenbeste botika bota, tomatea jateko da-eta. Oiloak ere orain denak daude barruan, ganadua ere ezin da atera kanpora... Produktuak, bestela, betikoak ditugu; orain, Gabonetara bitartean, porruak, letxuga batzuk, azak, zerba ederrak, azaloreak... Batera ez daitezen etorri, sasoikoa sartzen dugu, Gabonetakoa, udaberrikoa, udazkenekoa... Gero, gauza berriak baldin badatoz, letxuga klase berriren bat, eskarolaren bat, tomateren bat... ba horiek ere sartzen ditugu. Gero eta produktu gutxiago sartzen ditugu, baina terrenoa ona da, laua eta lodia, emankorra. Ura ez da goitik behera joaten. Hori bai, orain haizeak negutegia apurtu digu.

Soraluzeko azokan zer moduz?

Zortea dago hemen, astero baitago azoka. Edozein herritan ez da egoten azokan erosteko aukerarik. Gazteak ere etortzen dira erostera eta gainera, Udalak ez digu kobratzen, hori ere bada zerbait. Bergaran, berriz, hasi ziren eguazten arratsaldetan jende gaztea etor zedin azoka ipintzen. Hasi ginen han ere. Baina ez zuen funtzionatu. Zapatutakoak nahiko ondo funtzionatzen du han ere, baina eguaztenekoak ez. Bestalde, hemen Mustanera apurtxo bat eramaten dugu eta Bergaran, Lierniren fruta-dendara.



Denon artean arrakastatsu

TESTUA JOSE FELIX AZKARATE XARRA
ARGAZKIAK: BLUES HOTSAK ETA PIL-PILEAN

Pozik gaude antolakuntzan. Pozik entzuleen alaitasunarekin. Pozik musikarien eta teknikarien aurpegiak gogoratuz eta dena ondo atera delako. Programazioan maila bat gora egin da. Estilo aniztasuna, kaleko kontzertuak zapatura zabaldu, espazio berriak erabili, eta berritasun gehiagoren artean, harmonika ikastaroa ere hortxe. Garrantzitsua iruditu zaigu herriko taldeekin sinergiak sortzea eta lankidetzaz eragitea. Musika Eskola, Kontrargi argazki taldea, Baso Biziak, Pil-Pilean eta Gaztelekua izan ditugu ondoan. Institutuko ikasle eta gurasoak ere aritu dira eta ez da makala izan errugbi taldekoen lana. Ikusten ez dena ere inportantea da. Eta Udalaren laguntza berezia izan da herria "hankaz gora" jartzeko aukera erraztu digulako. Denon artean egin dugu arrakastatsu 7. edizio hau.





Zentral eolikoarekiko kezka

200 METROKO TAMAINAKO SEI AIRE-SORGAILU NAHI DITUZTE IPINI

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Soraluzen eta Debabarreneko zein Debagoieneko inguruko udalerrietan kezka eragin du Arena Power Solar 10 SLU enpresak aurkeztu duen Basalgoko parke eolikoaren makroproiektuak. Urrian argitaratu zuten eta Soraluzen zein inguruko udalerrietan taldeak sortu, tokiko erakundeak bilerak egiten hasi eta, besteak beste, iragarri dute alegazioak aurkeztuko dizkiotela egitasmoari.

200 metrokoa bakoitza

Izan ere, inpaktu handiko makroproiektua aurkeztu du Madrilén eta Sevillan egoitza duen Arena Power enpresak. Nahi dituzte sei aerosorgailu jarri Soraluzeko, Bergarako eta Eibarko lurretan, bat Soraluzeko Ilordo-Topinburu inguruetan. Haize-errota bakoitzak ia 200 metroko altuera hartuko du (Karakateko antena hiru bider). Izan ere, dorrea 112 metro altu izango da, errotorearen diametroa 175 metrokoa, eta, 85,7 metroko hiru pala izango ditu. Konparazioa egite aldera, Oiz mendiko aerosorgailuak 60 metro altu dira.

Transformadorea, linea berriak...

Horrekin batera, zentral eolikoarekin lotutako bestelako azpiegitura handi batzuk ere eraiki nahi dituzte, hainbat Soraluzeko lurretan. Adibidez,



Aerosorgailu erraldoiak mendilerroan zelán ikusiko liratekeen erakusten duen montajea.

Irureko Iraolabeitia baserritik 35 metrora zentro bat eraiki nahi dute, etxe baten tamainako eraikina. Horrez aparte, zentral eolikoan sortutako argindarra Elgoibarko azpiestaziora garraiatzeko tentsio ertaineko linea bat eraiki nahi dute, AP1 autobidearen gainetik pasatu eta Ezozí auzora ailegatuaz. Ondorioz, Ezozin ere eraiki nahi dituzte azpiegiturak.

Errepidea eta plataformak

Bestalde, aerosorgailuak mendira igotzeko eta haiek mendian ipintzeko ere obra

handia iragarri dute. Batetik, aurkeztutako dokumentuetan jasota dago gutxienez sei metro zabal den errepidea beharko dela aerosorgailuen elementuak igotzeko eta, errepide horren errebuelten radioa izan behar dela 65 metro baino gehiagokoa. Dago jasota ere, Elgetan eta Azurtzan saihesbide bana egingo dutela materiala mendira igotzeko. Bestetik, aerosorgailuendako plataformak ere eraiki beharko dituzte mendian, aerosorgailu bakoitzeko 24 metroko diametrodun zapata. Horrek guztiak mendiko faunari, landareei eta zuhaitzei eragingo die; adibidez, jasota dago 12.000 zuhaitz kenduko dituztela. Eta eragingo die ere akuiferoei.

Zentral eolikoak 30 urteko erabilera izango luke. Behin epe hori bukatuta, aerosorgailuak desmuntatu

**SEI AIRE-SORGAILU,
ERREPIDEA ETA
BESTELAKO
AZPIEGITURAK NAHI
DITUZTE ERAIKI**

egingo lituzkete, ez, ordea eraikitako beste azpiegitura guztiak, plataformak, errepideak...

Alegazioak, sinadura bilketak...

Basalgoko makroproiektua urritik dago argitaratuta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Orain, alegazio fasean dago. Besteak beste, Eibarko, Soraluzeko eta Bergarako Udalek batera aurkeztuko dizkiote alegazioak, Unai Larreategi alkateak esan duenez. Abenduaren 22ra arteko epea dute eta alegazioak lantzeko aditua den aholkularitza kontratatuko dute. Elgetako Udalak ere iragarri ditu alegazioak.

Txikizio handiegia

Larreategi alkateak esplikatu zuenez, Eibarko, Bergarako eta Soraluzeko Udalak irakurketaren arabera, Basalgoko makroproiektuak txikizio handiegia eragingo luke sortuko duen balizko onurarekin alderatuta.

Bestalde, erakundeak ez ezik, inguruko herritarrak ere mugitzen hasi dira. Soraluzen, joan den astean batzarra egin zuten. Bertan, izan ziren proiektuak eragingo dien zenbait lur-jabe, zenbat baserritar, Baso Biziak elkarteko ordezkariak, Unai Larreategi alkatea eta proiektuarekiko kezka duten zenbait herritar. Besteak beste, jakinarazi zuten lur-jabeek ere aurkeztuko dituztela alegazioak eta nahi dutela herritarrak ere horretara animatu. Abenduaren 1erako egin dute hurrengo hitzordua eta bertan aukera emango dute alegazioetarako formularioa eskuratzeko.



SABIN MENDIZABAL

HERRITARRA

"Berriztagarriak bai baina ez horrela"

"Beste behin, Karakaten bezala eta ustezko onura orokorraren izenean, mendiak industrializatuz enpresa batzuek poltsikoak bete nahi dituzte. Krisi klimatikoari ez zaio horrelakoekin aurre egingo, soilik lurra eta bizitza erdigunean jarritz lor genezake. Berriztagarriak bai baina ez horrela".



PABLO GALARRAGA

BASO BIZIAK ELKARTEA

"12.000 zuhaitz txikitu eta milaka tona lur emankor galduko dira"

"Baso Biziak elkartean proiektu polit bat daukagu lurre auzo inguruan. Epe motzean, 50 hektareatako baso bat sortzea da asmoa. Orain, berriz, 200 metrotako porlanezko dorreak agertu dira amets horren erdian. 12.000 zuhaitz txikitu eta milaka tona lur emankor galduko dira. Amets gaizto bat".



UNAI LARREATEGI

ALKATEA

"Ez da konpatiblea gaitasun txikien eremuetarako"

"Energia berriztagarrien LPSren azken bertsioan Basalگو ingurua "gaitasun txiki"ko gune gisa dago kalifikatuta. Aurkeztu duten proiektua ez da konpatiblea gaitasun txikien eremuetarako dauden baldintzekin. Alegazioak ikuspegi hortan eta proiektuak bestela ere badituen hainbat akatsetan oinarrituko dira".



JOSEBA LASKURAIN

BASERRITARRA

"Baso zati bat eta animalientako janaria kenduko ligukete"

"Guri bi zati kaltetzen dizkigu. Bat mendigainean, Soraluzeko lurretan dagoen eolikoarekin baso zati bat kentzen digute. Eta etxe ondoko zelaian sekzionamentru-zentrua eraikina eta poste bat jarri nahi dizkigute. Horrek animalientako janaria kenduko liguke, udarako eta baita negurako belarra ontzeko".

Urtea bukatzerako amaituta

BALTEGIETAKO ZEIN EZOZIBIDEKO OBRAK URTEA AMAITZERAKO BUKATU NAHIAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

Eguraldia lagun ez badute ere, aurrera doaz Baltegietakoko obrak. Bidearen lehen zatia -SAParen ondokoa- estali dute hormigoiz eta egunotan, kuneta berria egiten ari dira hango paretaren kontrara; hartara, urak paretaren ondotik bideratuko dira eta ez SAParen ondotik, orain arte zegoen moduan.

Goiko partean ere lanean

Hori egiteaz batera, kalearen goiko partearen zatirik handienean galtzada-harriak kendu dituzte eta zorua egokitzen ari dira, gero hormigoia bota eta, atzera ere galtzada-harriak jarri aurretik, lurra lisatu ahal izateko.

Hori egiten ari diren bitartean, etxeen ondotik egokitu dute oinezkoendako pasoa, pasabidea guztiz ez eteteko. Hori bai, ibilgailuen kasuan, aste honetatik ezin da Baltegieta 18 eta 24ko garajerik erabili, eta, iragarritakoaren arabera, gutxienez beste astebetean horrelaxe segituko dute. Bertako kotxeek aparka dezaten, SAPAko aterpea laga diete bien bitartean.

Galtzada-harriak berriro

Construcciones Echaide ari da Baltegietakoko obrak egiten. Obraburu Alvaro Garciak esplikaturakoaren arabera, kalearen goiko aldean une oro egongo da pasabideren bat



Baltegieta kaleko lanak aste honetan.

oinezkoendako. Hain zuzen, pasabidea orain etxeen kontrara dagoen moduan, gero, paretaren kontrara egokituko dute, kalearen beste aldetik. Halaber, kalearen zati horretan ere, kuneta lekuz aldatu eta paretaren kontrara eraikiko dute; modu horretan, orain arte etxeen ondotik zihoan ura beste aldetik bideratuko dute.

Behin kalearen goiko parte osoan hormigoia botatzeko lanak bukatzen dituztenean, garajeetarako pasabidea

zabaldutako egingo dute garajeen erabiltzaileei begira.

Azkenik, Baltegietakoko lanak amaitzeko, berriro ere jarriko dituzte galtzada-harriak, orain arteko berberak. Enpresaren asmoa da galtzada-harriak batera ipintzea kalearen osotasunean. Edozelan ere, oraindik ez dago azken lan horiek egiteko behin betiko datarik zehaztuta.

Baltegietakoko kalea konpontzeko obren aurrekontua da 86.219,07 euro gehi BEZ eta lanak egiteko aurreikusitako epea sei astekoa da. Urriaren 21ean hasi zituzten obrak eta, berez, abenduaren hasierarako bukatu beharko lituzkete. Baina, ezustekoa ere izan dute, URA Agentziak aurreikusi bako ur-hodi aldaketa bat egiten du kalearen

**BALTEGIETA OSOAN
HORMIGOIA BOTA ETA
GERO, GALTZADA-
HARRIAK JARRIKO
DITUZTE BERRIRO**

EZOZIBIDE AUZOKO OBRA GUZTIAK URTE AMAIERA BAINO LEHEN BUKATU NAHI DITUZTE

beheko partean, eta horrek obren amaiera atzeratzea ekar dezake.

Ezozibidekoak azkenetan

Bestalde, Ezozibideko obrak ere azkenetan dira. Horiek urriaren amaierarako bukatuta egon beharko lirатеke, baina han ere izan dituzte ezustekoak eta atzeratuta dabilta. Dena dela, ezustekoak konpontzeko bidean dira. Halaber, auzoko jolas-parkeko zabuak ipintzeko zorua ere egokituta dago eta, Soralezuko Udaletik



Ezozibideko konponketa lanak aste honetan.

esandakoaren arabera, auzoan ipiniko dituzten landare-loreen eta zuhaitzen landaketa guztiak abenduan egingo dituzte. Obra bera ere, bere osotasunean -auzoaren urbanizazioa gehi etheen igogailu-fatxadetako obrak-

urtearen amaierarako bukatuta izango dela da aurreikuspena. Artzamendi enpresa ari da auzoko urbanizazio lanak egiten eta otsailean hasi zituen. Etxebizitzetan berrikuntzak egiteko obrak, berriz, 2024an hasi ziren.

Criado
Fruitategia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsappez
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00

629 958 536

Soraluzeko Kooperatiba Elkartea
1910etik zabalik

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

MABEL
ILEAPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

OKELIA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Etxeko tripaki, txistorra, saltxitxa eta mingaina

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Mimar
ILEAPAINDEGIA

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Gabolatz, 6, behea
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

arrunta dekoraziokoa industrialia

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK

ANOVA



**Makinaria
salmenta eta
konponketa**

40 urte herritarrak goxatzen

TXURITXU GOZOTEGIAK 40 URTE BETEKO DITU AZAROAREN 28AN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: TXURITXU GOZOTEGIA

1985eko azaroaren 28an zabaldu zuten Txuritxu Gozotegia Pili Espigak eta Jesus Prolek. "Atzo balitz moduan akordatzen naiz. 19:00etan zabaldu eta zer zen hura! Jende mordoak kanpoan. Herriko ume guztiak ere! Txokolatea, pastelxoak, ardo gozoa... eman genituen", gogoan du Pilik.

40 urte geroago, betiko bezeroekin ospatuko dute urteurren potoloa, gaur, azaroak 28, gauza gozoak partituz, eta "sorpresaren bat" emanez.

Muruamendiaraztik Txuritxura
Gazte-gazte zirela zabaldu zuten Txuritxu Pilik eta Jesusek. Biak elgoibartarrak, hango Muruamendiaraz gozotegian lanean ezagutu zuten elkar. "14 urterekin hasi nintzen han lanean. Gustatu egin zitzaidan eta ikasketak laga nituen. Han ezagutu nuen Jesus, eta 18-19 urterekin pentsatu genuen gure negozioa zabaltzea. Elgoibarren bazeuden gozotegiak, Soraluzen ez, eta hona etorri ginen. Santa Anako etxeak egin berritan, lokala hartu genuen, oraindik adreiluekin zegoela. Diote hauxe zela komentuko konfesatokia. Kasualitatea, gu etorri eta astebetara-edo zabaldu zuten zubian gozotegia".

Bizitza Soraluzen

40 urteotan, Txuritxu Gozotegia izan da herrian aurrera egin



Arantxa Mendikute, Pili Espiga eta Yessica Barillas Txuritxun.

duen gozotegi bakarra. "Jendeak oso ondo hartu gintuen. Gazteak ginen eta ilusio handia genuen. Elgoibarko Muruamendiarazen ikasitakoa ekarri genuen. 1988an ezkondu egin ginen, hemen bizitzen geratu eta hemen jaio ziren gure seme-alabak. Nik urte gehiago daramatzat Soraluzen Elgoibarren baino. Hemen ditut lagunak, hemen dut bizitza".

Egun bakarrean 30 dozena pastel

Hori bai, 40 urtean asko aldatu dira gauzak gozo-dendan. Lehen, ospakizunetan, jaietan, domeketan... pastelak egoten ziren etxeetan eta elkarteetan, "Santa Ana egunean 30 dozena pastel saldu izan ditugu". Orain, berriz, asko gutxitu da pastelak erosteko ohitura, hainbat arrazoiengatik. 1990-1995ean etorri zen lehen jaitsiera, industriaren krisia eta gero

krisi ekonomikoa asko igarri baitziren Soraluzen. Hortik aparte, gizarteko aldaketak ere islatu dira gozotegian. Adibidez, ospakizun asko, etxeetan barik, jatetxeetan egiten dira, beste hainbat desagertzen ari dira -Jaunartzeak kasu- eta beste hainbat moldatzen. Horrek guztiak pastelak gutxiago erostea ekarri du.

Hartara, berrasmatu eta zerbitzu berriak eskainita segitu du bezeroak erakartzen Txuritxuk. "Ogia sartu genuen, egunkariak, izozkiak... eta lau bat urtetik hona, lagun baten gomendioz, gosari bereziak ere bai. Kosta egin zen jendea horretara ohitzea, ez pentsa. Baina orain, gosaritara, adibidez, gazte asko etortzen dira. Mota askotako tostadak ditugu, ahuakatearenak, fruitu gorriena, betikoak, ogi berezienak...".

Txurritxuko beste aldaketa esanguratsu bat obra izan zen, 2002an. "Jesusek gozotegia handitzea nahi zuen. Obra egin bitartean, hiru hilabetez Santa Anako garaje batean egon ginen lanean. Obra bukatu eta gutxira Jesus gaixotu eta uztailean hil egin zen. Eta nik... ba aurrera egin behar. Seme-alabengatik. Horregatik hau niretzat beste seme-alaba bat modukoa da. Oso oroitzapen handiak ditut hemen. Adibidez, egunero egiten dut lan, baina oso gustura etortzen naiz, gustatu egiten zait lan hau, jendea pozik doanean, neu ere pozik geratzen naiz. Niretzat oso gustagarria da".

Bezero fidelak

Eta Pilik dioena igarri egiten da bere bezeroengan. Asko ditu egunerokoak, batzuk baita 40 urtean eguneroko direnak ere. Ana Rosa Laskurain da horietako bat. "Ni etortzen naiz hasieratik, ondoren eta orain. Egunero. Orain Margarita Artolazabalekin eta Isabel Lizarraldeekin egoten naiz -eta gurekin eseri nahi duen edozeinekin-, eta lehen beste batzuekin. Guretzat hau da eguneko gasolina. Kafea eta tertulia, goiza hasteko modurik onena. Berba egin, barre... psikologoarengana joatea baino askoz hobea". Artolazabalek eta Lizarralde lekuaren goxotasuna ere nabarmendu dute: "Toki oso goxoa da. Pilik beti zaindu du dotoretasuna. Beti dago txukun, gustu handiarekin dekoratuta, 15 egunean behin aldatzen du dena. Lan handia hartzen du ingurua, bonboi kaxak, kutxak... prestatzen. Duen produktua ere dena dugu gustuko: mazapanak, pastak, bonboiak... Eta pertsonentzako ere benetan tratu ona dauka, etxeko tratua", diote hiru emakumeek.



Jesus Prol eta Pili Espiga Txurritxun, obra egin aurretik.



Jesus Prol seme-alabekin gozo-dendan.



Margarita Artolazabal, Ana Rosa Laskurain eta Isabel Lizarralde eguneroko kafea hartzen.

GUTUNAK

Eskertza

GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gipuzkoako Elikagaien Bankutik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu azaroaren 7an eta 8an izandako Elikagai Bilketa Handian laguntza eman diguten guztiei, haien laguntzarik gabe ezin izango baitzen egin. Era berean, eskerrak eman nahi dizkizuegu boluntarioei, zuen laguntza ordainezinaengatik; baita komertzio ezberdinetako langileei ere, aurreko egunetan zein Elikagai Bilketa Handi egunean jasotako erraztasunengatik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Nora jotzen duzu informazio fidagarria eskuratzeko?

Informazio eskaintza geroz eta handiagoa da garaiotan

**XABIER ERRETOLAZA**

"Normalean telebistara edo irratora jotzen dut informazio bila, edo herriko aldizkaria. Google eta horrelakoekin ez naiz fidatzen. Orokorrean, Internet ez dut erabiltzen eta inteligentzia artifiziala azaltzen zait, baina kendu egiten dut eta ez dut erabiltzen".

**BEÑE ORUESAGASTI**

"Normalean, hemengoaren berri Plaentzia.eus-en eta kanpokoaren berri, berriz, egunkarietan. Ohituta nago Diarioarekin eta berarekin konpontzen naiz ondoen. Sare sozialetan-eta ez nago batere preparatuta. Gehiago da medioaren arabera".

**MARI GIL**

"Jakin nahi dudanaren arabera, Wikipediara jotzen dut. Onenak, berriz, liburuak direla iruditzen zait. Albisteetarako, etxean irratora jotzen dugu eta telebistako albistegietara ere bai. Egunkaririk ez. Interneten, berriz, denetik dago".

**JOSU DURAN**

"Mota guztietako baliabideak erabiltzen saiatzen naiz, Internet, albisteak... eta iturri desberdineko iritziak edo informazioa hartzen eta neure kabuz kontrastatzen. Gaur egun arriskua dago algoritmoekin-eta zure iritzia lapurtzeko".

PUNTUA

**XABIER IÑURRIETA LABAIEN****Azaroan arazoa konponduta**

Txoko honetarako zertaz idatzi ez nekiela, hara non, Imsersori esker amama jarri zaidan arazoa konpontzea. Imsersok jubilatuei prezio onean bidaiatzeko aukera ematen digu eta Katalunian gaude emaztea eta biok.

Historia eta kulturarekin harremana nonahi aurki dezakezu lurralde honetan eta, Sitgesen gozatutako ilunabar bat edo besteren laguntzaz, toki hau maitagarria egiten zait. Hoteletik oinez ordu erdira dagoen Calafell herrian Carlos Barral poeta eta editore zenaren udako etxea dago.

Argazkietan ikus dezakegunez, katalanez eta gaztelaniazko idazle sonatuenak elkartzen ziren bertan, tartean gerora Nobel saria jasoko zuten bi lagun. Itsasertzeko paseoa, lurzoruan idatzita irakur ditzakegu, Estrabongandik hasita Gil de Biedmaraino, hainbat idazleren pasarte aipagarriak. Eta Comarrugako hotelera bidean Pau Casalsen oroimenezko museoa dugu. Biolontxelo jolea eta orkestra zuzendari famatua, 1936ko gerragatik erbesteratu eta ez zen inoiz itzuli. Beste askoren artean NBEn zuzendutako kontzertu zirraragarria eta munduko bakearen alde esandako hitz zeharo hunkigarrien bideoa dago. Haren bihotz ona eta gizatasun zabala beharko genituzke egungo mundu oker hau pixka bat zuzentzeko.





Bi plazentziatar Barrena astekariaren zero alea eskuetan dutela.

Barrena jaio da Pil-pileanen lekukoa hartzeko

Abenduaren 19an, Barrena astekaria eta Barrena.eus webgunea argitaratuko dira eta aurrerantzean, bertan jarraitu ahalko dira Soraluzeko eta Debarbarreneko gainerako herrietako berriak. Abendutik aurrera, Barrenak emango dio jarraipena Pil-pilean aldizkariak eta Plaentxia.eus webguneak azken 29 urteotan Soraluzeko aktualitatea lantzen egindako lanari.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Juan Fernandez**.

1

1996ko abenduan, kaleratu zen Pil-pilean aldizkariaren lehen alea eta 2007an ipini zen martxan herriko agerkari digitala: Plaentxia.com, ondoren Plaentxia.eus bihurtu zena. Pil-pilean herri komunikabideak, ia hogeita hamar urtez, plazentziatarrei herriko informazioa eskaini die euskaraz. Ostera, garaiak eta premiak aldatuz doaz eta Pil-pilean Euskaltzaleen elkarteak Debabarreneko beste hiru euskara

elkarterekin batera, erabaki dute herrietako hedabideak batu eta elkarrekin bailara mailako hedabidea sortzea: Barrena Komunikazio Taldea. Aurretik inguruko bailaretan jarraitu duten bidetik (Anboto Durangaldean, Goiena Debagoienean, GUKA Urola Kostan eta Lea Aribai eta Mutrikuko Hitza Lea Artibain) Debabarrenean ere beharrezko ikusi dute bailarako hedabidea eratzea, bere jarduna indartzeko, berritzeko eta horrela kazetaritza zerbitzu hobea eskaintzeko debabarrendarrei.

Sei urteko lankidetzat prozesuaren ostean, ailegatu da jauzia emateko ordua. Irakurleak ondorengo lerroetan aurkituko ditu Barrena proiektuaren nondik norakoen berri izateko zenbait gako.

"Geu izaten jarraitzeko"

Barrena komunikazio proiektua bultzatu duten lau euskara elkarteek mezu bateratua kaleratu dute debabarrendarrei zuzenduta "Geu izaten jarraitzeko" izenburupean. Mezuak honela dio: "Euskara eta euskal kultura biziberritzea da euskara elkarteon egitekoa, horretarako jaio ginen eta ahalegin horretan dihardugu. Ahalegin horrek emaitza egokiak ekarriko baditu, ezinbestekoa da adi egotea gizartearen aldaketei eta haren arabera egokitzea eta berritzea elkarteon jarduna eta proiektuak, kasu honetan, hedabideak.

Gaur egun hedabideek berebiziko garrantzia dute komunitategintzan eta hedabideen mundua oso azkar ari da aldatzen. Adituek iragartzen dutenez, datozen urteetan are azkarrago aldatuko da. Ondorioz, euskarazko tokiko hedabideek berritu beharra daukate gure komunitatearen oinarri izaten jarraitzeko eta hain zuzen, horixe da Barrena, elkarrekin euskarazko hedabideak berritzeko abiatu dugun proiektua.

Marraztu dugun komunikazio proiektuak egitura indartsuagoa eta profesionalagoa izango du, eduki multimedia gehiago eskaini ahaliko ditu, eskaintzak urrunago hedatzeko aukera emango die komertzioei eta oro har, difusio eta inpaktu handiagoa izango du debabarrendarron artean. Duen dimentsiogatik, Barrena izan daiteke azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko abiatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa, ezpada garrantzitsuena.

Beraz, aurrera begiratu eta elkarrekin bideari ekingo diogu. Elkarrekin euskara elkarteak, euskaltzaleak, herrietako eragile sozial eta komertzialak, erakunde publikoak, errealitate bihurtzeko debabarrendarrok behar dugun hedabidea, berritzailea eta euskalduna.

Horregatik, dei egiten dizuegu orain arte herrietako hedabideen irakurle, kolaboratzaile, laguntzaile eta komunitateko kide izan zareten herritar eta eragile guztioi, babestu eta balia dezazuen Barrena, mundu zoro honetan geu izaten jarraitzeko.

Sinatzaileak: Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza".

**DEBABARRENEAN ERE
BEHARREZKO IKUSI
DUTE BAILARAKO
HEDABIDEA ERATZEA,
INDARTZEKO**

**"BABESTU ETA
BALIATU BARRENA
MUNDU ZORO HONETAN
GEU IZATEN
JARRAITZEKO"**

Batu eta berritu

Debabarreneko tokiko lau hedabidek —Mallabiko eta Ermuko *Drogetenitturri*-k, Soraluzeko *Pil-pilean*-ek, Elgoibar eta Mendaroko *Barren*-ek eta Debako *Berriketan*-ek— indarrak batu eta bailarako komunikazio proiektu berria eratu dute: Barrena.

barren

Berriketan

DROGETEN
ITTURRI

Pil-pilean



2025eko irailean Barrenak eta Arrate Irratiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Arrate Irratiak leku propioa izango du *Barrena.eus*-en eta bertan entzungai izango dira irratiko saiorik esanguratsuenak.

Produktuak (abendua 19tik aurrera)

Astekaria paperean

Barrena astekariak 32 orrialde izango ditu eta Debabarreneko herri guztietako informazioa eskainiko du. Debak eta Itziarrek tarte finkoa izango dute bertan. Herritarrek etxean jaso ahaliko dute astekaria harpidetza bidez.

Barrena.eus agerkari digitala

Webgune bateratuak bailarako eta herriz herriko aktualitateari egingo dio jarraipena. Orain arte bezala, herritarrek bertan kontsultatu ahal izango dituzte albisteak, agenda, eskelak, komunitatea...

Helburua

Komunikazioaren mundua eta herritarren kontsumo ohiturak oso azkar ari dira aldatzen. Horiek horrela, Barrenaren helburua da herritarren beharrei behar bezala erantzuneko dien hedabide berritzailea izatea, erreferentzia debabarrendarren artean.

TOKIKOA

Barrena

BERRITZAILEA

**2020ko
iraila**



Bilera
Gipuzkoako Foru
Aldundiarekin

Gogoeta
prozesua



Elkarlana ehuntzen
(Albiste trukea, inbertsio plan bateratuak,
formakuntza saioak)

**2023ko
abendua**

Bailaratzearen
aldeko hautu
estrategikoa

“Azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko bultzatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa da”

Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza

Egitura berria

Lau euskara elkarteek Barrena Komunikazioa Koop. S. eratu dute 2025eko irailean. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da eta gobernantza publiko-sozialaren bidez kudeatuko da, hiru eragile nagusiren partaidetzarekin: euskara elkarteak (bazkide erabiltzaileak), langileak (lan-bazkideak) eta udalak (bazkide kolaboratzaileak). Eratzte prozesua amaitutakoan, hiru eragileok gidatuko dute elkarrekin bailarako hedabidearen jarduna.

“Orain arte egindakoa asko da, baina orain arte egindakoa egiten jarraituta ez dugu aurrera egingo”

Jon Sarasua - Euskararen Gogoetagunea



Komunitatearekin batera

Barrenarentzat komunitatea helburu eta bitarteko da aldi berean. Komunitateari zerbitzu egokia eskaini ahal izateko ezinbestekoa da harekin batera lan egitea. Herriarrak, euskaltzaileak eta herrietako eragileak dira Barrenari benetako indarra emango diotenak. Barrenakide egitea izango da parte hartzeko eta abantailak eskuratzeko moduetako bat.



Egitura eta elkarlana indartu

Bateratzeko prozesuaren diseinua

**2025eko
iraila**

Barrena
kooperatiba
eratu



Hitzarmen
estrategikoa
Arrate Irratiarekin

**2025eko
abenduak 19**

Barrena astekaria
eta webgunea
kalean!

Zenbait argibide aldaketaren inguruan

Jarraian, Pil-pilean herri komunikabideko erredakzioak Barrena proiektuak eragingo dituen aldaketen inguruko argibideak eman ditu, herritarrei azaltzeko aldaketa nolakoa izango den.

Zergatik erabaki duzue Barrena proiektua eratzea?

Garaiak aldatuz doaz eta adituek diote komunikazio arloa are gehiago aldatuko dela, batez ere, adimen artifizialak eraldaketa handia ekarriko duelako. Horrek esan nahi du berri beharra daukagula, batez ere digitalean, eta hori egiteko gaitasuna izateko modu bakarra euskarazko tokiko beste hedabide batzuekin elkartzea da. Hain zuzen, horixe da egin duguna, Debabarreneko beste hiru hedabiderekin bat egin, garai berrietako premiei erantzun ahal izateko. Barrenak aukera emango digu indar handiagoa izateko eta beste liga batean jokatzeko.

Zer berrikuntza ekarriko ditu Barrenak?

Orain arte elkarteetako lau hedabide izan garenak hemendik aurrera bakarria izango gara irabazi-asmorik gabeko kooperatiban. Egitura bakarria izango dugu eta batera funtzionatuko dugu.

Kanpora begira, herritarrek ikusiko dutena da marka bakarra, astekari bakarra eta webgune bakarra. Hemendik aurrera elkarrekin jasoko dute bere herriko informazioa eta

gainerako herrietakoa ere bai, bailara osokoa.

Plazentziatarren kasuan, hilean behin herriko aldizkaria jasotzetik pasatuko gara astero herriko informazioa eta bailara osokoa jasotzera Barrena astekarian. Barrena.eus-en ere Soraluzek atal propioa izango du eta nahi duenak bertan jarraitu ahal izango du herriko aktualitatea. Horrez gain, beste herrietako informazioa ere

segituko du herriko kazetari nagusi moduan. Egoitza ez da aldatuko, Soraluzeko Barrenaren erredakzioa egongo delako Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen bulego berean, gaur egun dagoen moduan.

Nola bizi duzue aldaketa?

Alde batetik dago halako aldaketa batek berarekin dakarren kezka eta ardura.



Pil-pilean Herri Komubideko erredakzioko kideak.

eskainiko da: beste herrietako berriak, bailarako agenda, eskelak... Lehen hedabide bakoitzak bere herriko informazioa eskaintzen zien bere herritarrei eta orain Barrenak herri guztietako informazioa eskainiko die debabarrendar guztiei.

Zer ez da aldatuko?

Aldatuko ez dena da gure lana, jarraituko dugulako Soraluzeko informazio lokala eta hiperlokala eskaintzen. Lantalde osoak jarraituko dugu Barrenan eta Ubanek Maderak

Aldaketek beti eskatzen dute lan eta esfortzu gehigarri bat eta honek ere badakar, noski. Gainera, ia hogeita hamar urteko ibilbidea egin duen hedabidea aldatzeak pena eta nostalgia ere eragiten du, noski. Baina urte asko daroagu proiektu hau lantzen eta gauzatzeko ordua ailegatu dela ikusteak ilusio handia ematen digu. Komunikazio proiektu sendoagoa egin eta herritarrei euskarazko kazetaritza eduki gehiago eta hobeak eskaintzeko ilusioa. Bizi dugun garai nahasiotan, tokiko

kazetaritzak oso funtzio garrantzitsua jokatu du eta euskarazko tokiko kazetaritzak pisu handiagoa izateko pausoak ematen dihardugula jakiteak asko motibatzen gaitu.

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea desagertu egingo da?

Ez. Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea herrian euskara biziberritzeko proiektuak lantzen jarraituko du: Kukumixoa aisialdi taldea, harrera planak, urteko kultur ekimenak... Gainera, Barrena proiektuaren parte izango da



Pil-pilean aldizkariaren hastapenak.

gainerako hiru euskara elkarteekin batera kooperatibaren jabetza nagusia izango duelako.

Orain arte Pil-pilean aldizkariak eta Plaentxia. eus-ek argitaratu duten informazioa kontsultatu ahaliko da?

Bai, noski. Aldizkari guztiak Barrena.eus-eko hemerrotekan kontsultatu ahaliko dira eta fisikoki udal-liburutegian ere bai. Eduki digitalak berriz Barrena.eus-era traspasatuko dira eta bertan izango dira ikusgai.

BARRENaren aurkezpena Soraluzen

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea gonbidatzen zaitu Barrena Debabarreneko komunikazio proiektuaren aurkezpena.

Eguna: Abenduak 3, eguaztena

Ordua: 19:00 (60 min.)

Lekua: Kalebarren, 8

Aurkezpenaren
ostean, luntx txiki
bat izango da



SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13
Soraluze
676 556 817 - 943 75 21 38

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Mota guztietako leihoak, pertsiak, ateak, barandiak, salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Bager Erreka Kalea 2 - 20500 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

Txoko
Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitariekak, natillak, pizza, gazaria...

Erakargarriak agian dira
Tel. 943 75 17 88

Euskaltzaleen aldea:

aras



laibi
ELECTRICIDAD

“Txapeldun izateko bolatoki bakoitzera moldatu behar zara”

JOSE ANTONIO NUÑEZ "TXIKI" BOLARIA

TESTUA ANDER GOMEZ

Aramaion hasi eta bukatu da aurtengo Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketa, Ziortza-Bolibarko, Soraluzeko, Markina-Xemeingo eta Elgetako bolatokietatik pasatuz. Azaroaren 22an jokatu zen finala eta Jose Antonio Nuñez "Txiki" plazentziatarrak jantzi zuen XXXV. edizioko txapela.

Euskal Herriko tituluaz gain, bikotekako txapela irabazi duzu Bittor anaiarekin eta “Gipuzkoako Bolari Onena” izendatu zaituzte.

Bolari Onenarena txirlo gehien botatzearren eman didate (22 Gipuzkoakoan, 30 EHkoan) eta ohorea izan da benetan.

Bikotekakoari dagokionez, 2023an bigarren geratu ginen Elgetako Sebas Aranzabal eta biok, baina orain anaiarekin irabazteak ilusio berezia egin dit. Bi anaiak, Jose eta Bittor, hortxe izan ditut beti aupatzen.

Bestela, betidanik bi sari izan ditut buruan: Gipuzkoako txapelketa eta Euskal Herrikoa. Lehenengoa 2014an lortu nuen, eta oraingo honekin *guztia* irabazi dudanaren sententzia daukat. Bukatzean, zerura seinalatu eta amari eskaini nion, hunkigarria izan zen.

Zela joan da txapelketa?

Lehen partidari lau txirlo bota nituen bakarrik, eta irabazleak bederatzi. Baina bigarrenaren sei botata lehenengo jarri nintzen, eta lidergoa mantendu nuen txapelketa bukatu arte.



Txiki Ezoziko bolatokian, Euskal Herriko txapela buruan eta kopa eskuan. A. GOMEZ



Nuñez anaiak Bikotekako Txapelketaren garaikurra jasotzen, Aranzabalen eskutik. J.A.N.



Elgetako botaldian. J.A. NUÑEZ

Gipuzkoako 2014ko hura guztiz desberdina izan zen, oso parekatua. Finalean 10 bolari inguruk geneukan irabazteko aukera, azkenean Sebas laguna izan nuen aurkari eta oraindik gogorarazten dit irabazi izana... (barre). Oraingoan kristoren aldearekin ailegatu naiz finalera, sekula ikusi ez dudana zerbait da eta oso pozik nago.

Erraz lortu duzula dirudi, baina ez zen bide samurra izango.

Ez, noski. Markina-Xemeingo bolatokia bereziki exigjentea izan zen adibidez, hiru bakarrik bota nituen. Baina hurrengo hitzorduan (Elgetan) zazpi bota nituen, eta etxean (Ezozin) berdin. Azken finean, bolatoki bakoitza mundu bat da, eta denetara hoberen moldatzen denak lortzen du txapela.

Zein bolatoki duzu gustukoen?

Elgetakoa. Guztiz itxita dago, taberna dauka... eta pistak suabe zein gogor botatzeko aukera ematen du. Nik, aukeran, beti gogor (barre).

...Eta Soraluzen, San Andres ala Ezozin? Busti zaitez!

Buruarekin San Andreskoa aukeratuko nuke, objektiboki hobea da. Baina bihotzarekin... Ezozikoa. Ni nabil kudeatzaile

(Sebas, Isana, Nerea, Gorosabel, Boni... eta Gorka Zubiaurren ezinbesteko laguntzarekin) eta azken hiru urteotan jaietako txapelketa berpiztea lortu dugu, kariño berezia diot.

Hor izan ziren zure hastapenak?

Ez batean, ez bestean. Gazteek ez dute jakingo, baina bolatoki bat zegoen Erregetxean, eta 7-8 urte nituela aitak bere kargu hartu zuen. Nagusiei bolak bueltatzen hasi nintzen, eta gaur arte.

Gustatuko litzaidake berriz ere horrelako bat izatea herrian, jendeak poteo egunetan joka dezan. Demaseko bultzada emango lioke kirolari, eta ,batik bat hemen, beharra daukagu.

Zein da klubaren egungo egoera?

Hamar federatu gaude San Andresen, baina hiruk bakarrik jokutzen dugu txapelketetan, anaiak biak eta nik. Orain gutxi zendu zaigu Iñaki Ariznabarreta

"GUZTIA IRABAZITA, BOLA-JOKOA HERRIAN BIZIRIK MANTENTZEA DUT HELBURU, TALDEAK ETA AFIZIOA SORTZEA"

Arritxa, eta omenaldia egin genion hemen (Ezozin). Gero eta gutxiago gara eta pena bat da, etorkizun iluna ikusten dut. **Bihar hori argitzeko ideiarekin bat edo beste izango duzu ziur.**

Bai, herriko bolatokia horietako bat da, zaila dela dakidan arren. Bestela, taldeak sortzea nahiko nuke. Ezoziko jaietako txapelketan 20 lagunek hartu zuten parte, eta taldeak bostekoak dira, beraz, lau izango genituzke. EHko txapelketan 73 bolari etorri ziren herrira (hiru bakarrik bertakoak) eta 90 partaidera heldu gintezke.

Zer esango zenieke herritarrei praktikatzera animatzeko?

Nik txapelketetan jarraituko dut berritoki ere irabazteko asmoz, baina, hasieran esan bezala, neuzkan bi ametsak bete ditut Gipuzkoako eta Euskal Herriko tituluekin. Ziklo hori itxita, nire esfortzuak hiru txirilo bola-jokoa zabaltzean jarri nahi ditut.

Orduan, ezer esan baino, garbi utzi nahi dut laguntzeko prest nagoela: bolatokia zabaltzeko, irakasteko, materiala lagatzeko, ume eta gazteei erakusteko... kirol hau herrian bizirik mantetzen lagunduko duen edozertarako.

Etena, aldi baterako

URRATSEK ERABAKI DU UMEEN DANTZA TALDEAREN JARDUNA ETETEA

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: PIL-PILEANEN ARTXIBOA

Hirurogeita zortzi urteko ibilbidearen ostean, Urrats dantza taldeak umeen taldearen jarduna etetea erabaki du, "aldi baterako". Urratseko arduradunek jakinarazi dutenez "aurtengo ikasturtean oso ume gutxi eman dute izena eta, erabaki zaila izan den arren, uste dugu egokiena dela taldearen jarduna etetea". Dantza taldeko kideen esanetan, erabakia ez da behin betikoa, asmoa baita datozen hilabeteetan "proiektu berri bat prestatzea".

Orain arteko ereduak gainbehera

Dantza taldeko ume eta gaztetxo kopuru txikia ez da oraingo kontua, "batez ere, pandemiaren ostean, igarri genuen jaitsiera handia eta azken urteotan ume kopuruak beherantz jarraitu du". Arrazoi zehatzak zein diren ez badakite ere, argi dute dantza taldearen orain arteko ereduak ez duela balio: "Ez dakigu zergatik den. Izan daiteke bestelako eskaintzak ugaritu direlako eta erakargarriagoak direlako, dantzari nagusien erreferentzia falta dutelako, euskal dantzek herriko ospakizunetan lekua galdu dutelako, ez dugulako promozio egokirik egin, ... Argi dagoena da orain arteko ereduak ez duela funtzionatzen eta zerbait berria asmatu beharra daukagula".



Urrats dantza taldeko dantzariak 2023ko Haurren Euskal Jaian. PIL-PILEANEN ARTXIBOA



Ezoziko Ama dantza taldeko dantzariak 1973an. PIL-PILEANEN ARTXIBOA

Proiektu berria

Orain dantza taldeko arduradunen asmoa da proiektu berri bat prestatzea. "Inguruko herrietan badira euskal dantza eskolak musika eskolei lotuta eta iruditzen zaigu formula hori interesgarria izan daitekeela Soraluzen ere, ume eta gaztetxoiei zuzendutako proiektu iraunkor bat bideratzeko. Udalak eta musika eskolak dagoeneko esan digute begi onez ikusten dutela aukera hori eta honenbestez, datozen hilabeteetan ahalegina

egingo dugu proiektu berriari forma emateko".

Bitartean, dantza taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete urteotan irakasle jardun duten Gema eta Itziar Urtiagari eta euren laguntza eman duten herritar eta gurasoei: "Eskerrik asko bihotzez eta espero dugu hilabete batzuk barru abiatu ahal izatea proiektu berri bat euskal dantzei herrian jarraipena emateko. Ongi etorriak zeregin horretan lagundu nahi duten guztiak".

"100 bat umeri erakutsi diegu dantzari"

GEMA ETA ITZIAR URTIAGA MURGOITIO URRATS DANTZA TALDEKO HAUR ETA GAZTEEN IRAKASLEAK

Itziar (Soraluze, 1979) eta Gema (Soraluze, 1977) Urtiaga Murgoitio ahizpek hunkituta jaso zuten Gaztañerre azokan egin zieten omenaldia. Urrats Dantza Taldeko gaztetxoek taldeak euren azken saioa egin ondoren, 2016tik irakasle izan dituztenei esker on dantza egin zieten. Itziar eta Gema, guztira, 16 urtez izan zira Urrats taldeko Haur eta Gazteen irakasle.

Irakasle eta dantzari, biak izan zarete. Noiz hasi zineten Soraluzeko dantza taldean?

Ni (Itziar) hiru urterekin eta Gema bostekin. Amari asko gustatzen zaizkio euskal dantzak eta berak bultzatuta hasi ginen. Gero, Amaia irakasle lanetan laguntzen hasi ginen 16-18 bat urterekin, zazpi bat urtez. 1995 inguruan, ikasketak eta lana kanpoan genituen eta laga egin genuen. Eta gero, 2016an, Amaia berriro egin zuen gurekin berba, berriro hasi ginen irakasle eta orain arte.

Zuei esker ume askok ikasi dute dantzan; hori gustagarria izango da, ala?

Oso gustagarria. Guretzat, umeei lan egitea oso polita da. 100 bat umeri erakutsiko genizkien euskal dantzak. Gure lehen ikasleak izan ziren Irati Iñurrieta-eta; orain, dantza taldeko guraso asko gurekin dantzari izandakoak dira.

Oroitzapenen bat gogora ekartzea eskatuz gero...

Ikastolako dantza taldearen 25. urteurrena oso polita izan zen, lehenagoko dantzariekin

elkartu ginen... Eta Gaztañerre azokan egin zigutena benetan polita izan zen eta gainera, ez genuen espero.

Orain, etetea egin behar du gaztetxoek dantza taldeak; noiztik dator beherakada?

Pandemiatik. Pandemia aurretik 46 ume zeuden. Pandemiak min handia eragin zuen, ume askok laga egin zuen eta ez da

guztietara etortzen. Baina orain, sei geratu dira eta ezin da taldea osatu. Txikienekin, berriz, 7-8ko taldetxo bat bada, baina oso txikiak dira euskal jaietara bakarrik joateko.

Berdin gertatu da inguruan?

Akaso Soraluzen gehien, baina Eibarren eta Bergaran, adibidez, euren euskal jai



Gema eta Itziar Gaztañerre azokan egin zieten omenaldiaren ondoren.

erreleborik egon. Pandemian, dantzak desagertu egin ziren kaletik, ondorioz, ume askok ez zekiten zer zen euskal jai bat. Gure azken urteak, adibidez, oso gogorrak izan dira. Pandemia eta gero 9 ume-gazte bakarrik geratu ziren; haiek eta euren gurasoek konpromisoa hartu eta orain arte segitu dute euskal jai

"PANDEMIA AURRETIK 46 UME ZEUDEN TALDEAN; PANDEMIA ETA GERO 9 GERATU ZIREN"

propioa egiten dute, ez dira ingurukoetara joaten... Oñatin, Arrasaten eta Antzuolan, berriz, eusten diote.

Zein da penarik handiena? 53 urte eta gero, agian ez dela berriro euskal jairik izango.

Baina, bada dantza taldea berriro bultzatzeko asmorik, ala?

Bai, asmoa da Musika Eskolaren, Udalaren eta gurasoen inplikazioarekin bultzatzea. Ea umeak animatzen diren, ez galtzeko. Eta eskerrik asko azken urteetan gurekin geratu direnei.

ZORION AGURRAK



Itziar eta Mila Gantxegi
Azaroaren 12an eta 20an. Zorionak bioi eta urte askotarako! Muxu handi bana familia guztiaren partetik.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

- Juan Jose Alberdi Elortza
- Jose Inazio Ibargoiien Elgeta
- Xabier Larrañaga Markiegi
- Ana Escribano Casco
- Juan Jose Nievas Ramirez
- Luis Ignacio Zubiaurre Bustindui
- Lola Luis Ortega
- Maria Jesus Iñurrieta Arana
- Earnación Alexandre Iglesias

Jaiotakoak

- Mustapha Ennouri Ait Bounou
- Juan Salguero Vega
- Arkan Frih Bouhassan

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Ettxeko fritoiak
Soufflés

Tel.: 943 75 10 02

Armendi
Jatetxea

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zuri-gentuko hortz idinkia, punta-puntuko teknologiatan lan egiten dugu. C&C Cam sistema berentzako analitikan dugu.

Elizburu, 3. behea
SOIALIZPE
Tel.: 943 75 25 67
Mug.: 947 42 78 09
e-mail: elizpe@elgimail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

BOLIT
TABERNA

Pirxeak, arsak,
kontinutak
Gazte-girako festa

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Kontugest
GROUP

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontugest.com

IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913

administradores

Centro Universitario de Estudios de Administración de Bilbao
Facultad de Filosofía y Letras Universidad del País Vasco

ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikasketetara. Zuzen-bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, etxetxe guztiek partaide-kuota bera ordaintzen dute komunitateko gastuetarako. Hala ere, etxebizitzaren erdiak gainerakoen baino bi aldiz etxe-aurre handiagoa dute. Jakin nahiko nuke etxe-aurrea konpontzeko orduan, indibidualizazio kontzeptua aplikatu daitezkeen gastuak ordaintzeko orduan eta ordaindu beharreko kopurua etxebizitzaren etxe-aurrearen azaleraren arabera kalkulatu, partaide-kuotaren arabera beharrez.

Etxebizitza guztiek zehaztutako koefizientearen arabera ordaindu beharko dute. Zuen kasuan, kontribuzio berdina egin beharko dute denek, koefiziente bera dutelako zehaztuta. Etxe-aurrearen azalera ezberdina izatea, beraz, ezin da salbuespena izan. Legez jasota dago gastuen indibidualizaziorako aukera, baina ez zuzen aipatzen duzun kasu horretarako. Gastuak indibidualki neurtu daitezkeen kasuetan bakarrik heldu dakioke aukera horri: ur kontsumoa, argindarra, berogailua...Baina kasu honetan ezin da zuzen diozun irizpide hori aintzat hartu, fatxada elementu komuna delako. Eta beraz, etxe-aurrearen mantentze-lanen gastuak etxetxe guztien artean ordaindu behar dira, partaide-kuotaren arabera, salbu eraikinaren agiriaren beste irizpideren bat zehaztuta dagoenetan.

AHOLKUA: Oker handia litzateke etxe-aurrearen mantentze gastuak alde horretara ematen duten etxetxeekin lotzea. Irizpide hori ez dago legez gastuen banaketarako ezartzen duen arauetan jasota.

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

ESKELA

Xabier Larrañaga Markiegi



2025eko azaroaren 10ean hil zen, 52 urte zituela.

Beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Azkoitiko Mendizabalko familia.

ESKELA



Luis Zubiaurre Bustindui



2025eko azaroaren 23an hil zen, 84 urte zituela.

Bere emaztea: Sonia Ezenarro; seme-alabak: Gorka eta Arantxi Peñalba, lagoba eta Ainhoa Unamuno; bilobak: Antxon, Naroa eta Jone; eta gainerako ahaideak.

ESKELA



Mari Carmen Corta Villimar



2025eko azaroaren 11n hil zen, 71 urte zituela.

Beti edukiko zaitugu eta eramango zaitugu gure bihotzean.

Etxekoak.

ESKELA



Mariaje Iñurrieta Arana



2025eko azaroaren 25ean hil zen, 62 urte zituela.

Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitxugu gure bihotzean eta ez zaitxugu sekula ahaztuko. Eskerrik asko Mariaje.

Etxekoak

ESKELA

Juan José Nieves Ramírez



2025eko azaroaren 16an hil zen, 88 urte zituela.

Aitxitxa, ez zaitxugu inoiz ahaztuko. Mila esker gugana gerturatu eta zuen babesa eman diguzuen guztiori.

Etxekoak.




MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

“ KIRURGIA GIDATUAK AZKEN PUNTAKO
TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DU.
PAZIENTEAREN EBAKUNTZA AURREZ ETA
ZEHAZTASUN HANDIZ
PLANIFIKATUZ. ”

ABANTAILAK:

- INPLANTEEN KOKAPEN MILIMETRIKOA BERMATZEN DU.
- TRATAMENDU MINMOKI INBADITZAILEA.
- ERREKUPERAZIO AZKARRAGOA.
- AZKEN EMATZAREN AURREIKUSPEN DIGITALA.
- DENBORA KIRURGIKOAREN MURRIZKETA.



RPS: 81/25

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM



INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA, 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR



616 68 03 11

 **DANOBATGROUP**

)) **euskaraz
izango
Gara** ((

HARTU PARTE DANOBATGROUPEN **EUSKARAREN
EGUNA OSPATZEKO LEHIAKETAN!**



DANOBATGROUP | DANOBAT | GOIMEK | SORALUCE | IDEKO

